

30 urte

STEE-EILAS



Ahatetxoen Iturria 2, 3.; 01001 Gasteiz ☎945141104 📠945144302 araba@stee-eilas.org

Prentsa Oharra

Gasteizko Sagrado Corazón -Jesusen Bihotza ikastetxean guraso talde batek egindako protestaren aurrean, STEE-EILAS sindikatuak hainbat argibide azaldu nahi du. “ikasleen konpromisoaren fitxa” bat banatzeagatik sortu da gatazka, horretan ikasleek egoera desberdinetan euskara erabiltzeko konpromiso hartzen dutelarik.

Aipatutako “Konpromisoaren fitxak” izaera ludikoa eta behin-behinekoa du (astebete edo bi aste) eta zigor-izaerarik gabeko beste ikastresna bat besterik ez da. Sinadurak izaera sinbolikoa du eta bere erabilpena –beste hainbat ekimenekin gertatzen den bezala– orokorra da hizkuntza normalizazio plana duten ikastetxe guztietan. Antzeko ekimenak, beste gaitan –sinadurarekin edo sinadurarik gabe - sentsibilizatzeko eta ikasleen artean ohiturak sortzeko, erabiltzen dira ohiko moduan beste ikastetxeetan, adibidez, ez erretzeko, ez edateko, lagunei ez jotzeko... Kasu hauek ere adingabeen fiskaltzara eramango al dituzte?

Legeak hala aginduta, ikastetxe horren Eskola Kontseilua –gurasoen ordezkariarekin- izan da urteko planari oniritzia eman diona, programatutako ekintza guztiak – curricularrak nahiz curriculumetik kanpokoak- bertan uztartuz. Sagrado Corazón – Jesusen Bihotza ikastetxearen normalizazio planean dauden ekintza guztiak, beraz, urteko planean daude sarturik, ikastetxearen proiektuaren testuinguruan. Ikastetxeak proiektuarekin konpromisoa du, ez ereduren batekin.

Onartezina da irakasleen kontra guraso hauek egiten duten presioa, bere lana fiskalizatzeko asmoz. Begirunea eskatu nahi dugu profesional horien izenean, are gehiago irakaslearen irudia indartu nahi duten une honetan, beraiek aurre egin beharreko eragozpenak kontuan hartuz eta beren eginbeharra duin bihurtzen saiatuz.

Zalantza handiak ditugu beste ikasgaien batean antzeko egoeraren bat gertatzekotan gurasoek hartuko duten jarreraz, euskerarekiko adierazten duten aurreikusiak nabariak baitira. Erantzuteko modu hori Hezkuntza Sailak abian jarri nahi duen hizkuntza eredu bakarraren eta euskeraren beraren kontrako presio kanpainaren testuinguruan ulertu behar da. Zehazkiago ikastetxe horrek bere proiektuan datorren ikasturtetik aurrera eredu bakarra ezartzearen aldeko apustu ausarta egin izana.

Jarrera horren aurrean STEE-EILAS sindikatuak indarrean dagoen hezkuntza ereduaren sistemak ez duela legezko hizkuntz gaitasuna bermatzen uste du, eta gainera, ez duela ahalbideratzen ez ekitate, ez kohesio soziala ezta aukera berdintasunik ere, gure ikasleek etorkizunean izango dituzten esparru guztietan. Berrero ere, argudio politikoak teknikoek gaintik nagusitu nahi dituzte.

Gasteizen, 2008ko otsailaren 26

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C

BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)

GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)

NAFARROA: Descalzos 72 (Ionja)

01001 Gasteiz

48003 Bilbao

20015 Donostia

31001 Iruñea

☎ 945 14 11 04

☎ 944 10 02 98

☎ 943 46 60 00

☎ 948 21 23 55

📠 945 14 43 02

📠 944 10 13 60

📠 943 45 36 27

📠 948 22 97 90

araba@stee-eilas.org

bizkaia@stee-eilas.org

gipuzkoa@stee-eilas.org

nafarroa@stee-eilas.org